

Badira eritasun hauen eraginari buruzko estatistikak, baina ez dakigu oso fidagarriak diren. Argitaratu diren lanetan leuzemiak, mielodisplasiak, linfomak eta antzeko odoleko eritasun gaiztoak zituzten gaixoei lanean kontaktu kimiko handiagoa dutelako susmoa aipatu izan da beti, baina oro har ezin izan dira ondo banatu lanarekin lotutako kasuak. Horregatik laneko kontaktu

Lanbidea eta eritasun hematologikoen arriskua

Jose Ramon Furundarena*

Britainia Haundiko 1985eko Gizarte Segurantzako Arauek ondorengo eritasun hematologiko hauek bakarrik onartzen dituzte laneko gaixotasuntzat: berunak, artsenikoak eta bentzenoak eragindako pozoiketak eta erradiazio elektromagnetikoen eta partikula ionizatzaileek eragindako odoleko arazoak.

kimikoen edo fisikoen eraginagatik agertu izanaren susmoa zuten eritasun hematologikoen berri emateko orrialde berezi batzuk argitaratu zituzten Osasun-argintariak. Hematologo guztiei banatu zitzaizkien galdeketa bat eta erantzunak bidaltzeko prestatu-


Eritasun hematologikoen diagnostikoen banaketa

Anemia aplastikoa	22
Sindrome mielodisplastikoa	49
Sindrome mieloproliferatiboa	17
Leuzemia akutu mieloidea	33
Leuzemia akutu linfositikoa	12
Leuzemia mieloide kronikoa	17
Leuzemia linfoide kronikoa	25
Mieloma / Makroglobulinemia	21
Trikoleuzemia	5
Linfoma	21
Berun-pozoiketak	5
Anemia hemolitiko akutua	1

tako gutuna ere bai, aipatutako eritasun susmagarrien berri koordinatzaile bati helarazteko. Ikerketak orain arte iraun duen 36 hilabeteko epean, 229 kasu berri jaso da; 201 gizonekoena eta 29 emakumezkoena. Adinari dagokionez, 26 kasutan 72 urtetik gorakoa izan da eta 4 gaixo 22 urtetik beherakoak izan dira. Kasu gehienak 1989tik aurrera diagnostikatu baziren ere, batzuk

Badira lanbidea eta eritasun hematologikoen eraginari buruzko estatistikak, baina ez dakigu oso fidagarriak diren.





Zaila da industria eta lanbide ezberdinen sailkapena ematea, baina sarrien agertu zirenak hauek izan ziren: industria kimikoa (30 kasu), industria nuklearra (18 kasu), indar armatuak (15 kasu), Osasun Zerbitzu Nazionala (14 kasu), kautxu edo gomen eratorrien industria (11 kasu) eta industria petrokimikoa (10 kasu).

lehenagoko 10 urteetan diagnostikatu ziren. 30 gaixoengan urtebete baino epe laburragoko kontaktua izan baldin bazen ere, gehienek hamarkadetan izan zuten.

Aurreko taulan agertzen dira diagnostikatutako eritasun hematologikoak eta bakoitzean izandako kopurua. Zaila da industria eta lanbide ezberdinen sailkapena

ematea, baina sarrien agertu zirenak hauek izan ziren: industria kimikoa (30 kasu), industria nuklearra (18 kasu), indar armatuak (15 kasu), Osasun Zerbitzu Nazionala (14 kasu), kautxu edo gomen eratorrien industria (11 kasu) eta industria petrokimikoa (10 kasu). Kopuru txikiagoak dituzten industrietan autoekin eta garraioarekin lotutakoak eta manufaktura kimikoko zenbait adar espezializatu aipa ditzakegu. Aipagarria da 9 erradiologo, 5 erizain eta medikuntza-laborategi bateko langile bat ere atzeman izana. Indar armatuetatik jasotako kasuetan hiruk arma nuklearrak probatzen egiten zuten lan. Gai kimikoen artean bentzenoa izan da eritasun hauekin gehien lotu zena (34 kasu) eta faktore

fisikoen artean berriz, erradiazio ionizatzailak aipatu behar dira (33 kasu). Sarri atzemandako beste gai aipagarriak hauek izan ziren: pinturak eta lakak (16 kasu), trikloroetilenoa eta beste zenbait disolbatzaile.

Ez du ematen hematologoak lanbide ezberdinetan izaten diren kontaktu fisiko-kimikoen eritasun hematologikoak sortarazten izan dezaketen eraginaz ezjakinak direnik. Ikerketa honetan jasotako datuak ezin dira behin-betikoztat hartu. Kontutan hartu behar da Britainia Handiko eskualde batzuetatik erantzun asko jaso ziren bitartean beste batzuetatik oso gutxi igorri zirela. Bestalde, diagnostikoen zuzentasuna frogatzeko neurririk ez zen hartu, gaixoak edukitako laneko kontaktua egiazkoa zen baieztatzeko kontrolik ez zen egin eta kasu bakoitza laneko kontakturekin lotuta zegoen edo ez erabakitzea hematologo bakoitzaren iritzia izan zen, koordinatzaileari horren berri eman edo ez erabakitzean.

A. Jacobs eta laguntzaileek *British Journal of Haematology* aldizkarian argitaratutako lan honek balio izan du eritasun hematologikoak agertzen eragina izan dezaketen lanbide-faktoreen azterketak behar-beharrezkoak direla agerian uzteko. Azterketa honetan maiz gutunak eta telefono-deiak erabili behar izateak argi utzi du lantegiek eta industriek informazio-iturri eskuragarriak eduki behar diren garrantzia, medikuek gaixoen historia klinikoak ondo osatu ahal izan ditzaten. Azkenik paziente bakoitzaren lanbideko edo lanetik kanpoko kontaktu-orduak jasota edukitzeak lagundu dezake eritasun hematologikoen sortzaile izan daitezkeen substantzia arriskutsuak atzematen.



* Gipuzkoako Ospitale Probintziako medikua eta OEEko kidea.